

2007ko ekaina

61. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria



**Mari Tere Aretzaga,
Fantasiazko
munduan
murgilduta**



Unai Basurko – Burdinazko Gerrikoa, gogoan – Aldekoneko jaiak – Santzoka

Aldakoneko jaiak

Ondo pasa jaietan!!!



Derio

Zurekin Aurretik



BASKOLAN
construcciones

*Patondak, teilatutak,
larruzak eta gutituek
konpondu eta iragazteak egiten*

I. BASKOLA S.L. BERRITEN
C/ALFARO, 10
40160 DERIO (Vizcaya)

Tel. 94 454 5045
Fax 94 454 5045

**ZIRIBADA
JATETxea**

94 454 5045

Donibarrak Plaza, 1
40160 DERIO



www.scitto.com

EVILINDIA,
S.A. AMOTAK, SUT


MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Mugapen Euzkadi, 17 40160 DERIO

Tel. 94 454 33 34
94 454 33 34 Fax 94 454 33 34

87. Anko. Iratzen. Galtza. Argita.

ESTANKOA



Estankoa S.L. 40160 DERIO (Vizcaya)



BEGO

**EL PAPAINTXIA
KEZ JARIM KICH OPIKOA
ELA GUTITAKO BERTIDAK**



UTXO KAFEA, 6. BAGO
Tel. 94 454 77 67
40160 - DERIO

Martxoaren 1.arenetik, 4.etik, 14.etik
Zapartaren 8.etik, 14.etik
Ostiralean egutzi aldiak

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Asier Bidaurrezaga, Udane Goikoetxea, Iñaki Bilbao, Jose Miguel Jauregi, Bizkaiko Bertsozale Elkartea, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Jantxu Bilbao, Laura Martinez, Ines Serrano eta Jasone Astola.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAIA

2010-11-2011-12-31

Ministerio de Cultura del Gobierno Vasco



BFA
DFB
Federación de Fútbol de Asturias
Deportes de Fútbol de Asturias



diruz lagundutako aldizkaria

12 Unai Basurko



34 La Pulqueria

24 Aldekoneko jaiak



14 Burdinazko Gerrikoa, gogoan



30 Santzoka Derioko gazte elkarte

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 12Gurean izan da...
Unai Basurko 13Gaztea eta... June Gonzalez 14Euskara
Tailerra Larrabetzun 16Burdinazko Gerrikoa, gogoan
22Publierreportajea 24Aldekoneko jaiak 26Txorierriko
Pilota Txapelketaren finalak 27Nevins eta Arregi lin-
guistak 28Derioko institutua 30Santzoka Derioko gazte-
en elkarte 32Baserri mundua 33Teknologia 34Musika...
La Pulqueria 36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda

LEANDRO
LANDETA




PARAGITEGIA-ORDAITZGIA
Guztira 11 • Tf. 94 452 34 47 - 452 34 48



Lehendakaria: J. J. Goikouria
Tlf. 94 452 34 47

FONTANERIA DOBARAN



Remontaje - Instalación
• Bañoak
• Kuxinak
• Kuxinagailak
9194 453 3860
11653 75 6034
Molina, 44-48031 SOMERA

Atzetik nor aurretik?



ASIER BIDAURRATZAGA
(Irakaslea)

Orain dela hamarkada batzuk kotxeen artean ere ez zegoen orain dagoen besteko ugaritasunik eta ibilgailua bera gure izakeraren bereizgarri gertatzen ez zenez, ginena edo ez ginena adierazteko beronen kristalak pegatinaz josten genituen.

Gogoratzen dituzue kotxeen atzeko leihoak txaplata reibindikatio zuzen eta nabarmenez betetzen ziren sasoiak? Seat 850etako txakur konformista burukulunkaria modan egon ostekoak... Nuklearrik? Ez, eskerrik asko, eguzkitxo internacional irribarre-

tsua euskaraz ere jarri eta geuretatu egin genuen, ikurtxoak ideologia eta izakera bat islatzen zuen punturaino. *¿Tú no serás de los del solecito?* itaundu zidan behin gaur egun 30 urte bueltan ibiliko den ikasle gazte polizia bokaziodun batek.

Geroago etorriko ziren *Euskaraz eta kitto!* edota *Euskal Herrian euskaraz* bezalako mezu onirikoak, polizia euskaldunaren aurrean ere aplikatu ezin eta, geure barruen mingotserako, behin baino gehiagotan irentsi behar izan ditugunak, badaezpada ere.

EH etiketa hemen edo CAT Katalunian ere nahiko mezu argiak izan dira eta bati baino gehiagori bihurtu zaio arazo oporretan-edo zezen larru idorreko errepideetan zehar lerratu denean.

Urte batzuetan gure ibilgailuak hauts zein pegatinen aseptikotasunik tristeenean eduki eta gero, *lightgoak* gara gaur egun. Osborneren zezen potrobikoaren aurrean astotxo katalana jaio zen auto atzean apaingarri; guk ere ezin gutxiago izan eta otzantagunaren sinbolo den artxo polemikoa zabaldu genuen geure artean eta gero etorri dira pottoka, basurdea eta abarrak. Matrikulek jatorria ezkutatu ondoren, zelan edo halan

nongotar garen erakusteko premia sotila sentitu genuen antza denez eta horrela dela sinistuta egon naiz oraintsu arte. Ibilgailuren bati zezena eta artxoak elkarbizitza baketsuan ikusi dizkiodan arte edo munduko hiritar zabal horietako bati kotxerako arditxorik inon ez duela aurkitzen entzun diodan arte...

Baina harago doa orain kontua, aurreko batean, atze asko ikusi behar izaten diren bidaia horietako batean, astoa ikusi nuen zezenaren gainean trosta bizian ekinean... Jo aurrerago eta, hara, oraingoan zezentzarra astoaren atzean zamalkari! Hasieran normala ere iritzi nion abere erakusketa amaigabe honetan piztitxook elkarren lagun eginda goxo-goxo ikusteari, baina argi dago harreman bero hauen azalpena animalion arteko promiskuitatean baino, sinbolizatzen duten giza taldeari irain egin nahian dagoela. Fase esplizituago honetan, nik neuk ez daukat zalantza izpirik popatik ematen nor hasi den.

“Matrikulek jatorria ezkutatu ondoren, nongotar garen erakusteko premia sentitu dugu”

Badoaz, bagatoz. Bagatoz, badoaz

Urteko egun guztiak dira bidaia.

Bidaiak ez dira urteko egun guztietan.

Etorri da eguzki gozoa eta beragaz itsasoko ur gazia. Oporrak. Denporak aurrera!

Denporeagaz lotzen dogu bizitzea. Denporea segunduak, minutuak dira. Denporea geurean aroa be bada. Gaurko denporea, aro haizetsua?

Orain ez dago haizerik. Haizea hara eta hona dabil. Sasioen araberako olgetaldiak egiten ditu haizeak. Isil batzutan, zaratatsu besteetan.

Orain ez dago haizerik. Itzuliko da? Eroango dau?

Beharbada... ekarriko deustaz lapurtutako amesetak.

Itsasoa gora eta behera, ilargia eta eguzkia txandaka olgetari zeru aldakorre-



UDANE GOIKOETXEA
(Kazetaria)

an. Arbolak jantzi eta biluztu egiten dira. Txorien kankar bizi dira batzutan, urruneko nota besteetan. Natura zaharra eta zuhurra da.

Baina haizeak laztandu zein bota egiten ditu sustrairik sakonenak daukezan arbola sendoak. Haizeak daroana gero ekarri dakar?

Haizea indartsua da bere ahultasunean.

Ez, orain ez dabil haizerik. Isilik dago.

Beste batzuk izan ziran geu baino lehenago. Danak galdu dira bidean, bidaian. Badoaz, bagatoz. Badatoz, bagoaz. Eta zer da, ba, bizitza? Amaieradun bidaia. Bidaia gogorra, bidaia ederra. Bidaia bidean nahastau eta lerrook udako bidaiarik aitatu barik garandu jatatz.

Etorri da eguzki gozoa eta beragaz itsasoko ur gazia. Oporrak. Denporak aurrera! Bidaiak ez dira urteko egun guztietan.

Urteko egun guztiak dira bidaia.

ZAHARRIENAKO ISTANBUL
Tabakoak, ilintza eta oporrik

Tel: 91 452 14 49 - 91 452 14 49
Tiketa: 10.000.000

REPER
MANTENIMIENTU INFORMATICO
COMPUTERIZADO INFORMATICA
SISTEMAS, MANTENIMIENTO
SOFTWARE TECNICO
Paseo Maritimo 70, 1º - 46100 - Sagunto
Tel: 964621144 - Mij. 064621144

DATONTEGA - TRONU-TRONU
Ruben
Antena 1, 10.000.000, 5 - Tel: 94 452 14 49
Antena 1 (Nijlari)

Txorierriko Udalbatzak osatu dira

EAJk alkatetza guztiak eskuratu ditu eta EAEk herritarren borondatea errespetatzeko eskatu du

Lander Aiarza, Tomas Ordeñana, Vicente Arteagoitia, Gorka Carro eta Sorkunde Aiarza izango dira berriro ere, Derio, Larrabetzu, Loiu, Sondika eta Zamudioko alkateak, hurrenez hurren. Luis Ramón Alvarez ez da aurkeztu hauteskundeetara eta datozen lau urtetan Alaitz Etxeandia izango da Lezamako alkatea. Beraz, ekainaren 16an udalbatzak osatu ostean, alkatetza guztiak EAJk lortu ditu. Beste alde batetik, EAEk zinegotzi bat eskuratu du Derion eta lau Larrabetzun. EAJk ere lau

zinegotzi izan ditu azken herri horretan eta EB-B-Aralar-eko ordezkariaren absentzioak Tomás Ordeñanari eman dio bertako makila, alderdi jeltzalea boto gehien eskuratu duena izan baita.

EAE ezin izan da herri guztietan hauteskundeetara aurkeztu, Lezaman, Loiu, Sondikan eta Zamudion legez kanpo gelditu delako. Herri horietan boto baliabakoak nabariak izan dira (Lezama, 284; Loiu, 130; Sondika, 247 eta Zamudio, 348) eta EAEk erreklamatu egiten ditu. Ho-

rrela, bere lekua udalbatzetan aldarrikatu du hainbat ekimen eta salaketa antolatuz. Lezaman, esate baterako, ezker abertzalearen jarraitzaile batzuk udaletxearen aurrean bildu ziren Udalbatza osatu aurretik eta ondoren, "Lezama demokrazia 0" lelopean. Bitartean, egoera konpontzeko agiria irakurri eta luzatu zien zinegotzi guztiei. Zamudion ere EAEko ordezkariak komunikatu bat irakurri zuten euren ustez egoera antidemokratikoa dena salatzeko eta herriaren erabakia kontuan hartzeko eskatzeko; hala ere, une tirabiratsuak izan ziren eta osoko bilkura gelaz aldatu behar izan zen udalbatza osatu ahal izateko.

Eak uko egin dio karguari Lezaman eta Zamudioko EB-B-Aralarreko ordezkaria ez zen aurkeztu udalbatza osatzera.

DERIO

ALKATEA: Lander Aiarza

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	7	7
PSE-EE	3	3
EAE	1	0
EA	1	0
PP	1	1

LARRABETZU

ALKATEA: Tomás Ordeñana

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	4	9
PSE-EE	0	0
EAE	4	0
EB-B-A	1	0
PP	0	0

LEZAMA

ALKATEA: Alaitz Etxeandia

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	8	10
PSE-EE	1	0
EB-B-A	1	0
EA	1	1
PP	0	0

LOIU

ALKATEA: Vicente Arteagoitia

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	10	9
PSE-EE	0	0
EB-B-A	0	0
EA	0	0
PP	1	2

SONDIKA

ALKATEA: Gorka Carro

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	8	8
PSE-EE	1	1
EB-B-A	0	0
EA	1	1
PP	1	1

ZAMUDIO

ALKATEA: Sorkunde Aiarza

	Zinegotziak	
Alderdiak	2007	2003
EAJ	9	9
PSE-EE	1	1
EB-B-A	1	0
EA	0	0
PP	0	1

Bocateria
3 otarteko
Pizzeria

2x4
Bocateria
Pizzeria
Bocateria
Pizzeria

ALAIK HERRIKO JAKITULAK IN TIKETAKO ZUZAR

ZAMUDIO TUA 16 00 11 00

MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sailakile eta baliageletarako harriak
fotobalia, atariak eta hilerriak

Torrearragoliti Ind. P. 28 - nabe 2
48170 ZAMUDIO (BIZKAIJA)
Tel/Fax: 94 608 01 41 - 3

ZAMUDIO

Industria 1. 48170 ZAMUDIO (BIZKAIJA)

BAR RAFI
PARRILLAS Y PASTAS

Barraf Rafi

48170 ZAMUDIO (BIZKAIJA) Tel/Fax: 94 608 01 41 - 3

Kudeakotarako Sozietatea
Biziakizako Zentro Aurreratua


SOGE CAR

Tratamendu lemoak
-Erabilnako olinak
-Agortulako balidnnek
-Urrolbalidnnek
-Automozu
bondekimen kudeaketa zuzen

Torrearragoliti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonos: 944 877 177 - Faxs: 944 522 618

Alzibar, Arku-tiro Estatuko txapeldunordea

Maiatzaren 26an eta 27an Espainiako Arku-tiro Txapelketa izan zen Avilan eta Joseba Alzibar zamudioztarrak bigarren postua lortu zuen ohiko arkuaren kategorian. Kategoria horretan 74 tiratzailek parte hartu zuten. “Egia esan, ez nago oso pozik”, esan digu Espainiako txapeldunordeak, “Kanporaketetan nahiko marka onak (52 puntu) lortu nituen, baina finalean oso urduri ibili nintzen. Txapeldunak 47 puntu egin zituen eta nik, 43”. Alzibarrek aipatu bezala, otsailean Euskadiko Txapelketa irabazteak askoz ilusio handiagoa egin zion. “Oso txapelketa estua izan zen hori. Talderik onenak Gasteizkoak dira eta bertako tiratzaileen artean Aitor Laguna nabarmentzen da. Euskadiko Txapelketaren finalean bere aurka aritu nintzen, baina Lagunari niri Espainiakoan gertatutakoa gertatu zitzaien: oso urduri ibili zela. Horrezaz gainera, Euskadiko Txapelketan guztiok ginen ezagunak eta giro atsegina-



Ikasturte osoan bertsogintza lantzen da Larabetzu, Lezama, Zamudio, Derio eta Sondikako herri ikastetxeetan. Ikasturteari elkarrekin amaiera emateko, eskola guztietako ikasleak batu ziren ekainaren bostearen Sondikako Kultur Etxean. Bertan Aitor Rubio abeslariarekin ikasturtean ikasitako abestiak abesteaz gain, gela bakoitzak bere bertsoak eskaini zizkien gainontzekoei. Bat-bateko saio batez gozatzeko aukera ere izan zuten Arkaitz Estiballes eta Etxahun Lekueren eskutik. Topaketa oroigarri banaketarekin amaitu zen giro ederrean. Datorren ikasturtean ere entzungo dira bertsoak Txorierriko eskoletan.

Testua eta argazkia: Bizkaiko Bertsozale Elkarte



Ateak ireki ditu Gurea Aretoak

Derioztarrek badute toki bat gehiago denbora librez gozatzeko: Gurea aretoa. Orain hilabete eta erdi ireki zen eta zinema, antzerkia, musika eta beste jarduera batzuk eskainiko dira haren barruan.

Zinema emanaldiak asteburuetan izango dira eta estreinaldiak eskainiko dira. Zinema sarreren salneurria 3 eurokoa izango da helduentzat, eta 2,50 eurokoak haurrentzat.

Musika programazioari dagokionez, herriko taldeek lehentasuna izango dute Gurea Aretoan.

Aretoa eraikitzeke lanek 310.000 euroko kostua izan dute; kostu horren % 27 Bizkaiko Foru Aldundiak ipini du.

**ERREKORD
ERAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

*Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO*

ADDITIONAL INFORMATION

Investment
made
with investment
planets

CERTIFICATION

100% RECYCLED
PAPER

 **UMENTZANO
MODA**
Tymeleta

Lomonte 1000, 3
Teléfono 91-99 14 11
Fax: 91-51 59 39

ENCARGADO
Roberto

CORCORAN
Regulator & Compliance Inc.



Derioko Xake Taldeak hainbat erronka ditu esku artean. Bigarren Mailara igo ondoren datorren denboraldiari aurre egin beharko diote eta 'San Isidro' X. Nazioarteko Opena prestatu ere egin beharko dute. Era berean, xakea ezagutzera ematen jarraituko dute eta Basauriko kartzelako Meseedetako jaietan une bereko partidak antolatzeaz gainera, Gordexolako Proyecto Hombre ekimenarekin jarriko dira harremanetan.

Distantzia olinpikoko (1500 m-40 km-10 km) lehen triatloia izan da, eta Euskal Herriko zirkuituko bigarrena. Bertan 300 lagunek hartu zuten parte, eta Virginia Berasategik (El Ambigú Triatlón Europa) lortu zuen lehenengo postua emakumezkoen kategorian. Sondikarrak 2:08:44 marka egin zuen. Félix Javier Martinezeak (AD Triatlón Camargo) lehenengo postua lortu zuen gizonezkoen kategorian 1:54:01 markarekin.


**LIBERAE
SÖNDIKÆ
LIBURUDENDÆ**

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JOSEPH BANGERT LANGE ANTON VAN

Historiaque, Geographia, Philosophia,
Poetica, Mathematica, Librorum,
papyrorumque catalogus.

Mihel Zupan, M. Tel. 2 Euzen 94 459 1633
40100 SONDUNA (Baskia)

ASESORÍA
Lp. Fernando Aguirre, s.l.

20000 22da. Avda. 1
Tel: 58 433 35 25 Fax: 58 477 06 18
4894 SCIENTIA Digital

GALAISA
Canonica via. Bezzelindoglio
041-4600 041-861 041-471 10102



20000000
20000000

Galassia (Galaissa) 10102 041-4600 041-861 041-471 10102

 **Goiri 78 S. L.** 
Servizio Clienti

 **POL. CARZA**
Tels: 04 453 25 15
04 453 25 31
40150 SOMMAVA (Vicenza)

Argazkia: Jose Miguel Jauregi



Hogeita bi koadrilek bat egin dute Larrabetzuko Koadrilen Egunean

Maiatzean II. Koadrila Eguna ospatu zen Larrabetzun. Koadrila Eguna uriko gazteen inizatiba izan da eta hainbat lagunek parte hartu dute antolatze lanetan.

Aurreko edizioa erabat arrakastatsua izan zen eta aurtengoan ere uritarrek ederki erantzun dute, izan ere, sei urtetik 60 urtera bitarteko lagunek osatutako 22 koadrilek bat egin dute ekimenarekin. "Gauza xume batek elkar gaitzakeela erakusten da hori bezalako ekimenen bitartez. Oso giro ederra egon da kalean eta ekitaldian jendetza handiak parte hartu du; ideologia ezberdinetakoak, gainera. Larrabetzun, zorionez, hala-ko ekintzak oso arrakastatsuak izaten dira eta jendea gogoz aritzen da", esan digute.

Koadrila Egunean hurrengo ekitaldiak antolatu zituzten: txistulariak, tortilla txa-

pelketa, bazkaria (koadrila bakoitzak berea egin behar zuen), olinpiadak eta erromeria Hori Baien. Horrezaz gainera, otzaran bat zozketatu zuten. Olinpiadak 'Karrozak' koadrilak irabazi zituen eta saritzat zapi bi eman zizkieten. Zapiok iazko olinpiadak irabazi zituen koadrilari eman zizkietenak dira eta 'Karrozak'-koek ere datorren urteko irabazleei eman beharko dizkiete, leku-koa izango balitz bezala.

Antolatzailerek ez dute dirulaguntzarik izan ekitaldiak antolatzeko. Dirua bere poltsikotik jarri du koadrila bakoitzak eta zozketa bat ere egin dute, dirua lortzeko. "Agerian utzi da dirua ez dela beharrezkoa, gauza polit eta majo bat antolatzeko. Jendea festa egitera animatzen denean, nahikoa da".

Iraultza FT Lehenengo Mailara igo da

Zamudioko Iraultza Futbol Taldeak Lurraldeko Lehenengo Mailara igotzea lortu du lehendabiziko aldiz. Ligan bigarren postua eskuratu zuten eta igoerako ligatxoan bi partida berdindu, eta azkena 0-4 irabazi zuten Zuazoren kontra. "Defentsa sendoa eta ilusioa" dira garaipenaren gakoak, taldearen arduradunen hitzetan. Iraultzakoek ez zuten espero denboraldiaren hasieran horrelako emaitzarik lortzea. Hala ere, primeran ospatu-ko dute. Izan ere, ekainaren 30ean herri-bazkaria antolatuko dute Zamudioko pilotalekuan, herriari eta lagunei garaipena eskaini nahian. On egin eta zorionak!



Euskal giroa, nagusi Zamudion

Ekainaren 24a, domeka, Lagatzu Eguna izan zen Zamudion eta bertan 190 lagun batu ziren euskara elkartearekin batera egun hori ospatzeko. Goizean kalejira egin zuten eta bazkaldu ostean euskal kantak abesteko aukera izan zuten, Piano Bat Bertsotan taldearen eskutik. Euskal giroa nagusi izan zen herrian egun osoan zehar.

Sua piztu da Txorierrin ere

Ekainaren 23a, zapatua, San Joan bezpera. Sua nagusi izan zen Euskal Herriko txoko guztietan eta Txorierrin ere piztu ziren San Joan-suak. Horien inguruan kantak, afariak, jokoak eta solasaldiak, besteak beste, egin ziren.

Osteopatia zentroa

Luisa

Luisa, 1. eta 2. planta

1. eta 2. planta

1. eta 2. planta

DERIO

DERIO

DERIO

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Gurai

HORTZ - KLINIKA

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

ARLAN

902 54 08 54

www.arlan.biz

Kalitatea, espazioa, lasaitasuna... Aurki ezazu behar duzun guztia



Zure etxean gertatzen egotea ruhi dugu Sukian. Hirtegitik, lantokian labe-hintza-guneak erabiltzen ditugu, Bilbo lantokiko habitat berria. Beti zure ametsa izan den lekua, etxebizitzaren pertsonalizazioak eta kalitatezkoak dituenak. Giza ezazu kiral eta gizarte ikipamendu horietan eta berdeguneetan Bilbotik, aireportutik eta Teknologia Elkarteetatik gertu dagoen inguruan. Zazoz Sukiana, zure etxean zaude.

 **sukia**
Zure etxean zaude.

www.sukia.com

Unai Basurkok Velux 5 Oceans estropadan 3. postua lortu du

“Txikitan zorabiatu egiten nintzen”

Zelan laburbildu ia 160 egun bakarrik itsasoan... Unai Basurko hori egiten saiatsu da Zamudioko Liburutegiak Zamudiotorren antolatutako hitzaldian. Portugaleteko nabigatzailea omenaldi asko jaso ditu mundua inguratu zuenetik. Ez du gutxiago merezi: 160 nabigatzailek baino ez dute lortu eta, gainera, Basurko hirugarren sailkatu zen.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Amaitzeari nahikoa irizten zenion eta, azkenean, hirugarren heldu zinen...

Mundua inguratzea beti da zaila. Abiatze marran egotea hutsa kristorena da. Kontuan izan 160 lagun baino ez direla mundua inguratzeko gauza izan. Ametsa da hirugarren sailkatzea.

Beti esan duzu itsasoari begiratu behar diogula...

Bai, eta goi mailako kirol proiektu honen helburua horixe da. Euskaldunon historiak eta kulturak horretara eroaten gaituzte. Eta horretarako jende guztia animatu nahi dut belan aritzera. Belak ez du zertan garestia izan. Eta egiten duenak sekula ez du uzten. Hasiera batean gerta daiteke zorabiatzea –txikitan neu ere zorabiatzen nintzen–, baina gero ez duzu zorabiorik izaten.

Proba oso zaila izan zen hasiera-hasieratik...

Bai, batez ere eguraldiaren ondorioz. Bernard Stamm txapeldunak behin baino gehiagotan inguratu du mundua, eta inoiz egin duen zailena izan dela esan zidan.

Lekurik erabakigarrienetako bat Hornos lurmuturra da. Ikusteko aukera izan zenuen?

Bai, eta argazki batzuk atera nituen, gainera. Han beti izaten da eguraldi txarra, eta, lurmuturra atzean uzten duzunean, klimatologia hobea izaten duzu. Australiatik itsasoratzen zarenean, lurmutur hori izaten duzu buruan, eta hura gainditzea berriro jaitze moduko zerbait da.

Zein izan da egoerarik txarrena munduko bira horretan?

“Euskaldunon historiak eta kulturak itsasoari begiratzera eroaten gaituzte”

“Haluzinazioak ere izan nituen; hala ere, merezi du une txarrak pasatzea, une onak ere izaten direlako”

Bat baino gehiago izan dira: hasieran gertatu eta portura itzuli beharra oso gogorra izan zen. Beste patroï batzuek ihes egin zuten eguraldi txarretik, eta alde handia hartu zidaten. Lehenengo asteko bidaia milaka aldiz egin dut (hemendik Galiziara) eta, hainbeste eragozpen izan ondoren, txarto pasatu nuen. Hala ere, bidaia luzea zela eta aurrera jarraitu behar nuela pentsatu nuen. Bestalde, Ozeano Barean ere gorriak ikusi nituen, ezin bainuen atsedetik hartu. Haluzinazioak ere izan nituen. Hornos lurmuturrean ere une zailak bizi nituen.

Eta onena?

Merezi du une txarrak pasatzea, une onak ere izaten direlako. Eta halakoak bat baino gehiago izan ditut: itsasontzian egon, eguraldi eta itsas baldintza ederrekin, bero jan... Munduko tontorrean egotea bezala da.


Hala ere, ez daukat ahazteko helmugara heldu nintzen eguna. Mundu osoa inguratzea, etxera heltzea eta han hainbeste jende egotea aupaka, eguraldia txar-txarra izan arren... Hori izugarria izan zen.

Lehiakideen artean oso giro polita dago, ezta?

Bai. Hasieratik oso *feeling* berezia sortu zen gure artean, eta etapen osteko atsedendiek ere aukera eman digute geure arteko harremana lantzeko. Errespetua ez ezik, adiskidetasuna ere izaten dugu.

Eta hemendik aurrera, zer?

Vendée Globe daukat buruan 2008ko azarorako. Mundua geldialdirik egin barik inguratu behar da. Gure helburua da beste proba askotan parte hartzea, proba hori prestatzeko. Bitartean, Pakea Euskal Herriko portuetara eraman nahi dugu, jendeak hurretik ikus dezan. Gainera, liburua egiteko asmoa ere badut.



June Gonzalez, taek-wondo Espainiako txapelketa kadete mailan

“Ingelesa ikasi baino nahiago izan nuen taek-wondoan hasi”

Eguzkiak aurpegian jotzen dion bitartean, Espainiako Taek-wondo Txapelketan izandako uneekin oroitu da. June Gonzalezek (1993) 4 urterekin hasi zen karate munduan, baina 10 urte bete zituenean konturatu zen taek-wondo praktikatu nahiago zuela, eta Derioko Doyan gimnasioan hasi zuen bere ibilbidea. Aurten Bartzelonan egindako Espainiako Txapelketan txapelketa izan da kadete mailan, eta, horrez gain, brontzezko domina lortu du Austrian. Burua Hungarian uztailean izango den europar txapelketan du jarrita.

Testua: Eder Merino



Zein sentsazioarekin iritsi zara Austriako lehiaketatik?

Sentsazioa ez da bat ere ona izan: nire pisuko jendea ni baino gogorragoa eta indartsuagoa zen eta zail izan dut nire teknikak abian jartzea. Horrez gain, finalerdietarako pasea aurretik lortu nuen, eta beraz, brontzezko domina hasieratik izan dut, eta horrekin bakarrik geratu naiz. Esperientzia gogorra izan da, baina, hala ere, Espainiako selekzioan egoteak atsegin handiko uneak eskaini dizkit.

Zeintzuk izan dira areririk gogorrenak?

Kroaziakoak oso arerio gogorrak izan dira. Lehiaketa oso gogorra izan da, benetan.

Noiz hasi zinen taek-wondo praktikatzeko? Nola?

Hamar urte bete nituenean hasi nintzen kirol hau praktikatzeko. Lau urterekin karate ikasketak hasi nituen Sondikan, baina hamar urte betetzean amak aukera bi eman zizkidan: ingelesezko akademia batean hastea ala taek-wondoan apuntatzea. Eta dudarik gabe bigarrena aukeratu nuen. Horrela izan da orain arte.

“Europako Txapelketan lehenengo borrokaldia irabaztearekin konformatzen naiz”

14 urterekin Espainiako txapelketa irabazi duzu kadete mailan, nolako izan zen final hori?

Bartzelonan ospatu zen maiatzaren 5ean eta urte bat gazteago zen Errioxako neska baten aurka aritu nintzen. Hiru borrokaldiren ondoren, irabazteko beharrezkoak ziren 12 puntuak eskuratu nituen. Une horretan ez nuen jakin zer egin, barrutik sentitzen nuen zirrara gehiegizkoa zen, baina senideak zoriontzera hurbildu zirenean negar egin nuela aitortu beharra dut.

Zein ekarpen izan du zugar taek-wondoak? Osasuntsu mantentzeko ematen didan aukera da garrantzitsua; horrez gain, ondo sentiarazten nau kirola praktikatzeko.

Uztailean Europa mailako txapelketan ari-

Galanek 4. postua lortu zuen

Iñigo Galan gaztetxoak Euskadiko txapelketa da 33 kilo baino gutxiagoko kategorian. Bartzelonan eginiko Espainiako txapelketan ere izan zen; bertan laugarren postua lortu zuen, baina, hala ere, pozik dagoela aitortu du. “Lehenengo aldia izan denez, urduri egon naiz, hainbeste ahotsen artean kontzentratzea zaila izan dut, alde batetik gurasoak, bestetik entrenatzailea, baina horrez gain esperientzia ahaztezina izan da” dio gaztetxoak. Horrez gain, Euskadiko txapelketa hurrengo lehiaketan hobeto egingo duelakoan dago.



tuko zara. Zer egiteko itxaropenarekin zoaz?

Bertan izatea ohore bat da, lehenengo borrokaldia irabaztearekin konformatzen naiz, baina dominaren bat lortzeko aukera badut askoz hobeto. Guztiaren gainetik, nire ametsa olinpiadetan izatea da.

Bar TRIPPY

ZURE GEOFIK OYENA

Hona hurren urte guztiak, martxo eta maiatz
eta irailaren bitartean, elkar elkarrekin, bilerak, bilerak...

Irakurri gure liburu
2018/19

MULTIPRECIO RAKEL

AM

Irakurri gure
liburuak

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

LEJARRERNE JAIEKHA

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

GOIZOTZ

Janari izan dena

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

GOIZOTZ
Teléfono: 91 123 45 67
www.goizotz.com

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

IMPORTACION Y EXPORTACION



IMPORTACION Y EXPORTACION

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

GOIZOTZ
Teléfono: 91 123 45 67
www.goizotz.com

Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak
Irakurri gure liburuak

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Gurasoak ere eskolara doaz

Arrekikili Larrabetzuko Euskara Elkarteak eta uriko Gurasoen Elkarteak Euskara Tailerra jarri dute martxan urtariletik ekainera bitartean. Tailer horretan parte hartu duten gehienak gurasoak dira, eta helburu nagusitzat izan dute “euskara praktikatzea eta lantzea, baina zerbait ikasiz”.

Euskara Tailerra antolatzeko ideia Arrekikilik eta Guraso Elkarteak izan zuten ia aldi berean. Arrekikilik aspaldian bultzatu zituen Berbalagun taldeak, baina, berba egiteaz gainera, euskara ikasteko ere talde bat sortzeko beharra ikusi zuen. Guraso Elkarteak kezka bera izan zuten: ohiko aukerez aparte, zerbait hurbilagoa antolatu nahi zuten eskolan seme-alabak zituzten gurasoek euskara ikasi ahal izateko.

Elkarte biak harremanetan jarri eta proiektua diseinatzeko hasi ziren. Talde “bitxia” sortu nahi zuten, zeina maila ezberdinetako pertsonen osatuko baitzuten. Gainera, nahi zuenak izena eman dezakeen bertan, inongo baldintzarik beste behar izan barik. Horretara, bada, gurasoek ez ezik beste larrabetzuarrek ere hartu dute parte tailerrean, eta bederatzi ikasle ikasturtea bukatu badute ere, talde hainbat lagun pasatu dira sei hila beteotan.

Euskara-maila ezberdinetako lagunen osatzen duten taldea aurrera eramatea ez da lan erraza; hala ere, tailerrean arduradun bi egoteak (Xiberu eta Ines) behar horretan lagundu die eta talde bi

“Euskara-maila ezberdinetako lagunek osatzen dute taldea, eta bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta lantzen da hizkuntza”

sortu ahal izan dituzte: txikiak eta handiak. Lehenengo taldean maila apalagoa duten ikasleak daude eta bigarrean, maila altuagoa dutenak. Talde biek metodologia bera erabili dute euskara ikasteko: ipuinak, antzerkia eta egoerak landu. Baina talde bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta prestatu dituzte ariketa horiek. Adibidez, ipuinekin lan egiten zutenean, talde bakoitzak zati bat lantzen zuen, eta kontaketa guztien artean egiten zuten. “Ez dakigu asmatu dugun ala ez, baina ondo ateratu da eta abiapuntua izan daiteke”, esan digute arduradunek.

Argi dagoena da ikasleak gogoz joan

“Seme-alabekin ez ezik kalean ere praktikan jartzen dute eskolan ikasitakoa”

direla eskolatera eta euskara apur bat gehiago ikasi dutela. Are gehiago, zero-tik hasi den ikaslea badago taldean, eta sei hilabeteen elkarriketen hariari jarraitzea lortu du.


Talde heterogeneoa; formatu egokia

Euskara Tailerra bisitatu dugunean Maite, Marta, Mari Mar, Joseba, Edu, Maribel eta Igone topatu ditugu klasean. Gehienek seme-alabak dituzte eta hori izan da tailerrean parte hartzeko izan duten arrazoi nagusienetarikoa. Baina beste batzuk ere bota dituzte galdetu zaienean, herriko euskara ikasteko eta aspaldian ikasitakoa gogora ekartzeko, euren artean. Edozelan ere, guztiak bat datoz argudio batekin: tailerraren malgutasuna. Eskola barikuetan, arratsaldeko 5etatik 6:30era bitartean, izan dute eskolako liburutegian eta, horretara, lana, seme-alabak eta etxea uztartu ahal izan dituzte.

Guztiek hartu dute positibotzat esperientzia eta irakasle biek egindako ahale-

gina balioetsi nahi dute: “Gurea hain talde heterogeneo izanda, zaila izan behar omen da haientzat, baina lan bikaina egin dute. Gainera, ez dugu ahaztu behar tailerra doan dela. Beste alde batek, formatua oso ona izan da guretzat eta elkarrengandik ikasi dugu. Badakigu ez dugula titulurik lortuko, baina gure helbururik nagusia gure artean euskaraz komunikatzea izan da hasiera-hasieratik, eta hori lortu dugu”. Era berean, etxean ez ezik kalean ere praktikan jarri dute eskolan ikasitakoa. “Gabeziak izan direla onartu ere egin behar dugu, eta gauzak askoz hobeto egin ahal direla. “Txikiek”, esate baterako, bide gehiago beharko lituzke beharbada; baina beti ere formatu txikian...”, aipatu dute irakasleek. “Baina guk ez dugu hutsunerik sumatu, ezta exijitu ere!”, erantzun diete.

Datorren ikasturtean Euskara Tailerra martxan jarriko dute berriro. Metodologia aldetik gauzak hobeto egiten ahaleginduko dira eta herriko euskara gehiago lantzea ere hartuko dute erronkatzat. Horrezaz gainera, bide egokiagoak eta eragingarriagoak topatuko dituzte Euskara Tailerrean izena emateko epea ezagutzera emateko eta horren berri ahalik eta larrabetsuar gehienengana heltzeko. Aurtengo ikasleek, behintzat, hurrengo ikasturtean Euskara Tailerrean jarraituko dutela ziurtatu digute.





Burdinazko Gerrikoa, gogoan





Francoren tropek duela 70 urte Burdinazko Gerrikoa apurtu eta Txorierri indarrez hartu zuten. Hori dela-eta, Larrabetzun eta Zamudion ekainean ekitaldi sorta zabalaz goatzeko aukera izan da: hitzaldiek, ibilaldiek, erakusketek, zein garai honetako musika edo zine emanaldiek osatu dute egitarau oparoa.

Larrabetzun Bizkargi 1937 ekimenak eta Arrekikili euskara elkarteak kultur astea antolatu dute. Bertoko lagunek “zerbait memorian betiko jartzea” izan dute helburu, Sabin Arana antolatzaileetako baten esanetan. “Iñaki Berazategik dokumentazioa zuen, eta azkenen kultur astea jarri genuen martxan”.

Herritarren erantzunari dagokionez, pozik agertu da Arana. “Jende ugari etorri da ekitaldietara eta zorionak eman dizkigute”. Hala ere, ez dira antolatzaile horrek espero zuen hainbeste adintsu azaldu. “Baliteke Gerra zibila bizi zutenentzat oso garai mingarriak izatea, eta horregatik, gogoratu nahi ez izatea”, argudiatu du. Etorkizunari begira, Aranak uste du 75. urteurrena hain gertu izanda, horrelako ekitaldiak jarraipena izango duela, urterotero ez izan arren.

Larrabetzun eginikoaren antzera, Zamudion ere gogoan izan dute tropa frankistak Txorierrin sartu izana. “Memoria berreskuratu behar da”, aipatu du Iosu Ziordia antolatzaileak. Bera ere pozik dago herrian “ahoz ahozkoak” izandako harrerarekin. Etorkizunari begira, memoria hori landuko lukeen elkarteak sortu nahi izango luke Iosuk.





Hotel Tryp Sondika



Ejkenizash

DEPATU EKURU EKURUK
BEREZIENA DUREKIN

Jana Kartash



TRYP

WELCOME

კომპანია ავტო-ტურისტებისთვის, ავტო-ტურისტებისთვის
Tbilisi (Tbilisi) 110000, Georgia (Tbilisi)
Phone: +995 31 211 1111, Fax: +995 31 211 1111
E-mail: tryp@sondika.ge



“Paradoxikoa bada ere, ez dut gogoratzen haur-literatura irakurri izana haurtzaroan”

Mari Tere Aretzaga 1943. urtean jaio zen Arrigorriagan. Lezamara duela 35 urte ailegatu zen eta azken 15 urteak haurrentzako istorioak asmatzen eman ditu. Bere liburuak euskarara, galegora, katalanera eta valentzierara itzuli dituzte eta Euskal Herriko eta Estatuko eskoletan lantzen dira.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Nola ailegatu zinen liburuen mundura?

Ikasi bezain laster hasi nintzen idazten. Garai hartan ez zegoen gauza hoberik egiteko eta nire familiak, xumea izan arren, irakurtzeko grina handia zuen. Gauero libururen baten pasarte bat irakurtzen genuen eta horrek imajinazioa eta idazteko gogoia piztu zizkidan. Eskolan sari batzuk irabazi nituen eta andereñoek animatu ninduten aurrera jarraitzera. Beraz, bizitza osoa eman dut idazten; hala ere, literatura ez dut lanbidetzat, *hobbyzat* baino.

Eta zergatik haur-literatura?

Helduei zuzendutako nobelak ere idatzi ditut, baina mundu hori askoz konplikatua da eta arrazoi batengatik edo besteren batengatik ez dut lortu libururik argitaratzea. Foru Aldundirako eta hainbat Udalerako, besteak beste, zerbait publika-

“Bizitza osoa eman dut idazten; hala ere, literatura ez dut lanbidetzat, hobbyzat baino”

tuta banuen ere, argitaletxe serio baterako idatzi nuen lehenengo liburua *Rana por un día* izan zen. Edebe argitaletxeak saritu zuen liburua, eta, horri esker, lanean hasi nintzen argitaletxearekin. Azken 15 urteotan haur-literatura idatzi dut, argitaratu ahal izateko biderik errazena dela ikusten dudalako. Baina, ez pentsa, nagusientzako literaturaren gai batzuek erakartzen naute oraindik!

Zaila da 6 urtetik 13 urtera bitarteko ume-



Bisitatu gure bloga
www.blogari.net/tximintx

Erresistentzia-erakundeak, indarkeria-erakundeak

Zurtozkoak %10ko DESKONTUA

*“Nahiko ‘ume’ sentitzen
naiz eta oso erraza
suertatzen zait
fantasia aske uztea”*

gaztetxoentzat idaztea?

Ez, 13 urtetik gorakoentzat egitea zailago suertatuko litzaidake, ez dudalako uste gaur egungo nerabeen munduan sartzeko gauza izango nintzatekeenik. Eta saiatu naizen aldietan “gatzgabe” ikusi dut neure burua. Baina umeentzat idaztea beste kontu bat da, ni ere “nahiko ume” sentitzen naizelako, beharbada, eta oso erraza eta eroso delako fantasia aske uztea mugarik jarri gabe.

Funtsezkoa izango duzu “ume-izaera” hori mantentzea...

Baina niri gustatuko litzaidake pentsatzea guztiok, helduak eta arduratsuak izan arren, behin izan ginen umea gure barnean gordetzen dugula, eta noizean behin kanpora atera eta arnasa hartzen uzten dugula. Izan ere, hipoteka eta haserrealdiez aparte, ilusio eta askatasun apur bat ere izan behar dugu bizitza honetan.

Zertan oinarritzen dira zure istorioak?

Egoeraren arabera. Batzuetan orri zuri baten aurrean eseri –hain naiz antzinakoa, ezen oraindik papera eta boligrafoa erabiltzen ditudan- eta burutik pasatzen zaidana idazten dut. Edo munduan gertatu den zerbait hartzen dut abiapuntutzat, edo kezkatzen nauena azaltzen saiatzen naiz... Nire liburuetan, adibidez, ekologismoak eta naturarekiko begiruneak leku garrantzitsua dute. Izan ere, mundu bakarra dugu eta gu mundu horren parte gara, eta zaindu behar dugu. Halako ideiak literaturaren bidez umeei hurbiltzea ezinbestekoa

*“Estimu handiagoa diet,
beharbada, oraindik
argitaratu ez ditudan
liburuetako pertsonaiei”*

da, nire ustez.

Beste ipuin batzuk ere hartu dituzu erreferentziatzat...

Bai, ipuin klasikoetan oinarritu naiz liburu batzuk idazteko orduan –*Otra vez a Carabás, El otro sastrecillo...*– eta beste ikuspuntu bat ematen saiatu naiz edo jarraipena idatzi diot liburuari. *Otra vez a Carabás* liburuan, adibidez, Katu Botaduna hil ostean markesaren gora beherak kontatzen ditut.

Sortu dituzun pertsonaien artean, zein da zure kuttunena?

Rana por un día liburuko sorgina, agian. Sorginak igel bihurtu zuen printzea, baina horrek giza egoera berreskuratzen duenean, zoriontsu izaten laguntzen dio. Izan ere, 200 urte igel ibili ondoren, ez da batere erraza lekua topatzea munduan. Eta, alde horretatik, sorgina pertsonaia bihozbera dela uste dut. Dena dela, estimu handiagoa diet, beharbada, oraindik argitaratu ez ditudan liburuetan agertzen diren pertsonaiei, nigandik hurbilago daudelako.

Lan asko duzu argitaratu barik?

Bai, tiraderak lanez beteta ditut. Baina horietako batzuk ezin dira gaur egun argitaratu, aspaldian idatzi ditudalako eta ordutik hona izugarri aldatu direlako gizartea eta pentsatzeko era. Eta beste lan batzuk atzera bota dizkirate... *Se necesita Blancanieves* liburuarekin, adibidez, arazok izan ditut eta katalanez baino ez da argitaratu. Argitaletxeko baten bati liburu



M^o Tereren idazteko era askoz errezagoa eta hurbilagoa da gaur egun. Haurrak ere konturatu dira

Hästens

denda

**Cualon meubelen
cheek**

www.haustext.com

ARTEAGA koltxoi-denda

Deriska Sotikaria • 94 454 51 47 • DERIO

*“Haurrentzako
liburuetan eguneroko
gai gehiegi lantzen
dira gaur egun”*

*“Ez zait literatura
serioa gustatzen, ez
idazle moduan, ez
irakurle moduan”*

“matxista” zela bururatu zitzaion, baina arretaz irakurtzen bada, helarazi nahi dudana argi ulertzen da: ipotzek benetan botatzen dutela faltan Edurne Zuria, hori printzearekin bizi izatera joan ondoren.

Aurreko galderari lotuta, zein ipuinek edo liburuk izan zuen eragin berezia zuregan haurtzaroan?

Ba, Antonio Roblesen istorioak izugarri gustatzen zitzaizkidan, idazle horrek errealitatea eta fantasia uztartzeko oso era berezia baitzuen. Denetarik irakurtzen nuen, baina, hala ere, ez dut gogoratzen haur-literatura irakurri izana, etxean genituen liburu guztiak helduei zuzenduta zeuden-eta. Paradoxikoa dirudi! Gaur egun antzinako idazleei irakurri nahiago diet, literatura lar errealista idazten dela uste dudalako, eta momentu honetan ez naudelako asetzen.

Eta nola ikusten duzu gaur egungo haur-literatura?

Apur bat pobre. Irakurtzeko aukera izan dudana berri laburrak kontuan hartuta, haur-literaturan ere eguneroko gai gehiegi lantzen dira, nire ustez. Eta nik askoz atseginago dut imajinazioa eta fantasia aske uztea. Beste bide batzuk topatzen saiatzen naiz, haurren fantasia estimulatzeko.

Betiko kontua: gutxi irakurtzen dugu; gaztetxoek, batez ere.

Bai, eta eskoletan ikasleei irakurtzeko agintzea ere ez da konponbiderik egokiena, beharbada, umeek obligaziotzat hartzen dutelako... eta badakigu zer gertatzen den obligazioak tartean daudenean... Baina, egia esan, niri ez zait bururatzen beste era-

rik, umeek irakur dezatela lortzeko. Dibertsioagatik irakur dezaten, gustatzen zaielako. Nire liburuak ikastetxeekin lantzen dira batez ere, eta nik gaztetxoei beti esaten diet hurrengoa: ‘Ez bazaizue liburua gustatzen, mesedez, utzi eta hartu beste bat. Ados?’.

Harremanik baduzu eskolako umeekin?

Bai, azken 15 urte hauetan Euskal Herriko eta Estatuko hainbat ikastetxetako umeekin egoteko aukera izan dut: Andaluziako eskoletan izan naiz, Zaragozan, Oviedon... Eta umeak leku guztietan dira umeak eta fantasia eta askatasuna maite dituzte. Nire idazteko era aldatu da urteak pasa ahala; orain askoz errazagoa eta hurbilagoa da eta haiek ere konturatu dira, eta horrela esaten didate, gainera. Era berean, elkarri idazten diogu eta oso dibertigarria da, benetan.

Zure liburuak euskarara itzuli dira, galegora, katalanera, balentzierara... Edizioak eta edizioak atera dira. Sariak eskuratu dituzu. Pozik egon behar, ezta?

Bai, *Rana por un día*, esate baterako, nire best-sellerra da: 16. argitaraldia atera dute jadanik. Pozik nago. Nahiz eta literatura arloan nahi handirik ez izan, lana balioesten zaizunean egundoko poztasuna hartzen duzu, noski.

Literatura alde batera utzi behar izan duzu denboraldi batez, baina hori berrir

hartzeko gogoarekin ikusten zaitugu.


Neure burua birziklatzen nabil eta helduei zuzendutako literatura berrartzea ere planteatzen ari naiz. Baina ikuspegi fantastiko batetik; lehen aipatu dudana moduan, ez zait gustatzen literatura serioa, ez idazle moduan, ez irakurle moduan. Eta asko irakurtzen nabil, ea zein bide hartzen dudana!

Liburuak



- Rana por un día* (1993)
- El tesoro de Sam* (1995)
- Las montañas del cielo* (1996)
- El otro sastrecillo* (1999)
- El sueño del abejorro* (1999)
- Es necesita Blancaneus* (2001)
- Otra vez a Carabás* (2002)
- Y todo por un gato negro* (2005)


Sariak

Garbo aldizkariaren saria birritan eman zioten (70. hamarkadan) eta, era berean, Foru Aldundiek eta zenbait herrialdeek saritu dute hainbat alditan. 1993. urtean Edebe saria lortu zuen *Rana por un día* liburuarekin, eta *Las montañas del cielo* lanari esker Lazarillo Sarira accesita eskuratu zuen 1996. urtean.



Sigridekin, egongelan. Txakurak El Capitán Truenoren neska-lagunaren izena du.





Dozena bat urte zure konfiantza irabazten

- Odontologia orokorra
- Elbakuntza. Haskunde faktoretan aberatsa den plasma (PRGF)
- Periodontia
- Hortz jartzea eta berritzea
- Hortz estetika (zinkaketa, piercing...)
- Ortodontia (umeak eta helduak)

CLINICA DENTAL

ZAINDUZ

HORTZ KLINIKA

Jesús E. López Hódar
Odontólogo
C.I.F. 4607

Doce años contando con tu confianza

- Odontología general
- Cirugía. Plasma rica en factores de crecimiento (PRGF)
- Periodencia
- Implantes y rehabilitación dental
- Estética dental (blanqueamiento, piercing...)
- Ortodoncia (niños y adultos)

Golkor kalea 2 beheko (camara Ordokolk)

48160 DERIO

Teléfono/fax: 94 454 01 01

Móvil: 657 78 64 45

e-mail: cdjkl@euskalnet.net

www.deriozinean.com/centroderio



Solartek, eguzki-energia



Eguzki-plakak, inbertsio ekonomiko errentagarria

Energia ondasun urriagoa da egunetik egunera eta legeriak laguntza ematen die eguzki-energia ekoiztu nahi duten pertsonei zein enpresei, sortutako elektrizitatea lehentasunezko prezioan erostera behartuz konpainia elektrikoak. Horrezaz gainera, inbertsioak kenkari fiskal garrantzitsuez baliatzea ahalbideratzen du eta kasu batzuetan fondo galdurako dirulaguntzak lortzea ere bai.

Solartek ingeniari-tza eta instalazio-enpresa da eta sarearen bidez konektatutako sistema fotovoltai-koetan espezializatuta dago. Duela hiru urte eratu arren, Solartek eskarmentu handiko enpresa da, izan ere kideek zazpi urte daramatzate eguzki-energiaren sektorean lanean.

Eguzki-energia fotovoltai-koak hurrengoak dakar: eguzkiaren argiaz baliatzea elektrizitatea sortzeko. Energia mota horretan dirua jartzea inbertsio ekonomiko errentagarria da, instalazio bakoitzak bere elektrizitatea ekoiztu eta konpainia elektrikoari saltzeko aukera baitu. Horrela, sortutako energiaren salmentarekin ordaintzen da hasierako inbertsioa –hori hamar urtean berreskuratu egiten da- eta handik aurrera, etekin jarraituak izaten dira plakak baliogabetu arte.

Instalazio fotovoltai-koak etxeetan zein enpresetan jar daitezke eta plakak ere edozein lekutan ipin daitezke: ormetan, lurre-

“Hasierako inbertsioa 10 urtean berreskuratu egiten da eta handik aurrera, etekin jarraituak izaten dira plakak baliogabetu arte”

an, teilatuetan...

Instalazioa egiteaz gainera, Solartek enpresak bere gain hartzen ditu instalazioa era egokian kudeatzeko beharrezkoak diren tramite administratibo guztiak, ingeniari-tza-lanak, muntaia eta mantentzea; hau da, konpainia elektrikoarekin negoziatzea, obra-lizentzia, finantzaketa, zergen izapidetza eta aholkularitza fiskala, besteak



beste. Era berean, instalazio guztiak alar-maz eta segurtasun-sistemaz hornitzen dituzte eta interneten bidez kontrolatzen dituzte, ondo funtzionatzen duten egiaztatzeko.

Bezeroa pozik egotea enpresaren arauen-tarikoa da eta, horretarako, kalitate handi-ko produktuak erabiltzen dituzte eguzki paneletan zein alderanzgailuetan eta egi-turetan. Solartek-k erabiltzen dituen pla-kek 25 urteko bermea dute eta plaken potentzia ere —eguzki-energia hartu eta energia elektrikoa ekoizteko duten ahal-mena—bermatzen du enpresak. Halaber, beste materialek ere epe luzeko bermea dute.

Enpresaren lan-taldeak esperientzia han-dia eskaintzen du eguzki-energiaren sek-torean. Horrela, bada, potentzia askotari-ko instalazioak eta muntaketa-sistemak egin dituzte Estatu osoan zehar. Txorierrin ere instalazio batzuk jarri dituzte martxan eta laster, Euskal Energia Erakundearen bitartez, instalazio berri bi egingo dituzte Sondikako udalarentzat eta beste instala-zio bat Derioko udalarentzat.



solartek

ETXEBIZITZETAN, INDUSTRIA-PABILOIETAN ETA LUR GAINEAN

Ldonork jar dezake eguzki-instalazio bat
eta etekinak lortu

Eguzkiak zuretzat egiten du lan. Eguzki-energia
egorlarazina eta doan da. Hasiareko inbertsioa
funtzionaltasun handia du eta ekoiztutako
energiaren bidezkoak dira.



ESTUDIOA EGONITU ETA KONPROIMISO BARRIK EGINGO DIZUGU

Tel. 94.421.16.75 - www.solartek.net - solartek@solartek.net

EGUZKI-ENERGIAN INBERTSIOA EGITEA ETORRIZUNEAN INBERTITZER DA

Aldekoneko jai-batzordea

“Aspaldiko jai-giroa berreskuratu gura dogu”

Jai-batzordea erabat barritu egin dala Aldekoneko Santiago eta San Inazio jaietako nobedaderik haundiena da, zalantza barik. Holan, aurtengo jaiak 27 urtetik 30 urtera bitarteko sei lagun prestatzen ibili dira, eta egitaraua ilusio eta borondate osoz osatu dabela ziurtatu deuskue.

Nola ailegatu zarie jai-batzordera?

Santiago eta San Inazio Derioko jairik eza-gunenak izan dira betidanik –hori uste dogu guk, behintzat, eta holan esan deuskue gurasoek eta aitiba-amamek-, baina azken urteotan indarra galduz joan dira. Hori dala-eta, aurreko jai-batzordean parte hartzea pentsatuta genuan, baina hori desagertu danez, jaiak gure kontu hartzea erabaki dogu aurtan.

Jaiak antolatzea ez da batere lan erraza. Zeintzuk dira topatu dituzuen oztopoak?

Lehenengo eta behin, IFKa lortu behar da jai-batzordea edo elkarte sortzeko, eta horrek denbora daroa. Baina zailtasunik handienak hurrengoak izan dira: zein ekitaldi mota antolatu pentsatzea eta horreen arteko koordinazioa. Izan be, errazak ematen dabezan gauzak ez dira hain errazak benetan.

Laguntzarik izan dozue?

Laguntza ekonomikoaz aparte, hainbat aholku emon deuskuez. Eta familia eta



Zezen-buztana saltsan lehiaketa lehenengo aldiz egingo da aurtan

lagunak be laguntzeko prest izan doguz momentu orotan. Mila esker zuoi guztioi. **Zer-nolako ekitaldiak antolatu dituzue?**

Adin guztiei zuzendutako jai-egitaraua osatzen ahalegindu gara: ume, gazte zein helduei zuzendutakoa. Egitarau on bat prestatzea zaila da errekurtoak urriak badira, halan be, jaiak ilusio eta borondate

osoz antolatu doguz. Badakigu batzuentzat ez dala beste munduko gauza izango, baina urterik urte gauzak hobetzea espero dogu. Eta, horretarako, ezinbestekoa izango da zuen laguntza. Beraz, irakurle hori, anima zaitetz eta Derion ikusiko dogu elkar!

Nobedaderik egongo da?

Bai, lehiaketa barri bat: Zezen-buztana saltsan edo Rabú. Hainbat auzokide etorri jakuz proposamen hori eginez. Beste alde batetik, eta nahiz eta nobedadea ez izan, antxina egiten ziran ekitaldiak berreskuratut gura doguz: txalaparta erakustaldia, dantzen alardea eta Santa Ana eguneko gisatu dastatzea, esate baterako.

Zein helburu bete gura dozue aurtan; hau da, jaiak antolatzen dituzuen lehen aldian?

Aspaldiko giroa berreskuratu gura dogu, eta derioztar guztiak herrian geldi daitezala, jai bultzada haundia emoteko. Izan be, horren beharra dabe.



AIKOR! lagun Egin zaitetz euskararen lagun!

Isen-abizenak _____

Helbidea _____

Txartelario _____

Hartutako 30 zenbakia _____

Hiru kopietatik 10 emon _____

Hona laguna bat

Orri hau helbide: herriara bidali:
AIKOR! Aresti Kalea 2, B 48 170, Zamudio
edo bestela sara www.aikor.com webgunean

Zure laguntzagaz akliskaria hobetuko dogu!



Jai-egitaraua

Garagarriaren 25a, eguaztena (Santiago)

11:30: Txupinazoa eta kalejira
12:00: Mezea
13:00: Umeentzako ekintzak
14:00: Sukalki Txapelketa
16:30: Mus Txapelketa
18:30: Dantzen alardea
20:00: Txalaparta erakustaldia
21:00: Txitxiburruntzia

Garagarriaren 26a, eguena (Santa Ana)

11:30: Kalejira
12:00: Mezea eta sukalki dastatzea
17:00: Umeentzako gymkana
20:00: Tortilla Txapelketa
21:00: Hip-Hop kontzertuak: Cadena Perpetua, Sagu, McPir Kel, Boker eta Koldo

Garagarriaren 28a, zapatua

11:00: Kalejira
12:00: Umeentzako jokoak
14:00: Paella Txapelketa

Mozorro lehiaketa izango dugu



19:30: Perkusio afrikarra
23:00: Gaudantza, Bizargorri taldeagaz
03:00: Diskoteka

Garagarriaren 29a, domeka

11:00: Kalejira
12:00: Mezea
13:00: Poko-piko pailazoak
14:30: Herri bazkaria eta bertsolariak
18:30: Txitxarrikoa, Los Palmera taldeagaz
21:30: Txokolatada

Garagarriaren 30a, astelehena (San Inazio bezpera)

11:00: Kalejira
12:00: Umeentzako tailerrak
17:00: Gorriti eta bere animaliak
22:30: Mozorro Lehiaketa
23:30: Gaudantza, Lisker taldeagaz
00:30: Mozorro Lehiaketaren sari banaketa
01:00: Gaudantza, Lisker taldeagaz
03:00: Diskoteka

Garagarriaren 31an, martitzena (San Inazio)

11:00: Kalejira
12:00: Mezea
13:00: Dantza internazionalak: Kuba
15:00: Txorierriko I. "Zezen-buztana saltsan" Lehiaketa
19:00: Idi-probak
21:00: Trio Vera Cruz dantza taldea

Abuztuaren 3a, barikua (San Esteban)

12:00: Mezea eta marmitako dastatzea
13:00: Trikipotea
14:00: Bakailaoa pil-pilean Txapelketa
19:00: Herri jokoak
21:00: Sardina jana



Txorierriko Pilota Txapelketaren finalak, emozio handikoak



Ekainaren 10ean, Txorierriko Pilota Eskolen Arteko Txapelketaren finalak jokatu ziren Zamudioko pilotalekuan. Sei partida hauek jokatu ziren: txikiak, umeak, gazteak, kadeteak eta gazteak. Parte-hartzaile guztiek maila ezin hobia erakutsi zuten eta emozioa nagusi izan zen pilotari eta pilotalekura joandako lagunaren artean; batez ere, gazteen partidan, lehia handiko partida izan baitzen, ordu eta erdi iraun zuena. Eta harmailak, gainezka. Ladero eta Marcos, alde batetik, López eta Olabarrietaren kontra lehiatu ziren; azken horiek apur bat gazteagoak ziren eta hasiera batean 11-20 irabaziz joan arren, indarra eta urteak nagusitu ziren azkenean eta Laderok eta Marcosek 22-21 irabazi zuten.

Guztira, 6 urtetik 18rainoko 97 pilotarik hartu dute parte txapelketan. Aurten Leioa, Gernika eta Mungiako lagunak ere izan dira lehenengo aldiz. Parte-hartzaile-ei domina bana eman zitzaizkien.

Argazki guztiak aikor.com webgunean

Emaizak mailaka:

Txikiak

Lander Quintana (Derio) 18

Iker Sagasti (Larrabetzu) 8

Umetxoak

Iker García (Derio) 18

Elder Ojinaga (Derio) 7

Umeak

Nagore Asla / Jon Ordeñana (Derio) 15

Elder Basterretxea / Iker Bilbao (Larrabetzu) 18

Gazteak

Ander Castresana / Joseba Fernández (Sondika) 12

Ander Uriarte / Beñat Zallo (Derio) 18

Kadeteak

Eder Álvarez / Aitor Calvo (Leioa) 18

Anton Basterretxea / Joseba Legarreta (Getxo) 11

Gazteak

Asier Ladero (Derio) / Alberto Marcos (Zamudio) 22

Adrián López (Larrabetzu) / Aimar Olabarrieta (Zamudio) 21





“Gramatika buruan bertan dugu”

Andrew Nevins eta Karlos Arregi Harvard eta Illinois unibertsitateetako irakasleak dira, hurrenez hurren, eta orain dela gutxi Zamudion izan ditugu herriko euskararen gaineko ikerketa egiten. Ikerketak hizkuntzaren bidez gogamenaren jarrera aztertzea du helburu.

Azaldu, mesedez, zertan datzan ikerketa.

Gu linguistak gara eta arlo horretan tententzia bi daude: bataren arabera, hizkuntza ikasi egiten da eta, bestearen arabera, hizkuntza buruan dugu egituratuta. Gu azken horren aldekoak gara.

Beraz, guk uste dugu buruan grabatuta dugula hizkuntza osatzeko era, eta, ondorioz, hitz egiten dugunean buruan dugun gramatika zehatz bati jarraitzen diogula. Gure helburua da gramatika hori zein den jakitea eta hizkuntza dagokion buruaren aldeak nola funtzionatzen duen ikertzea. Korapilatsua da...

Bai, ez da erraza azaltzen. Baina laburbilduz hurrengo hau izango litzateke: gramatika liburuetan izan beharrean, geure buruan bertan dugu eta horren arabera osatzen ditugu esaldiak eta hizkuntza.

Adibidea jarri.

Umeeek hiru urte dituztela, ama hizkuntzaren zati handi bat menperatzen dute eta zazpi edo zortzi urterekin ia hizkuntza osoa ezagutzen dute. Haur batek hizkuntza lehenago ikasten du lokarriak lotzen baino, nahiz eta hizkuntza askoz korapilatsuagoa izan. Zergatik? Buruan duela, jaio zenean bazuelako gramatika hori buruan. Arazoak eskolako gramatika

“Badira hitz egiteko era desberdinak, eta guztiak dira egokiak”

ikasten hasten denean agertzen dira: ‘esadazu indikatiboko lehenaldi pluskuan-perfektua...’, esaten diote eta, noski, ez du ideiarik ere. Baina, hala ere, esaldiak osatzeko eta berbaldiak izateko gai da.

Horren arabera guztiok dugu gramatika berezkoa.

Bai, bakoitzak gure hitz egiteko era dugu eta linguistontzat, gainera, guztiok egiten dugu ondo. Euskara batuarekin eta euskalkiekin hau gertatzen da: ideia zabaldu da euskara batua hitz egiteko era zuzena dela eta euskalkiak, berriz, etxean erabiltzeko direla. Baina hori ez da horrela. Pertsona batek beste batek baino hobeto hitz egiten duela esateak berekin dakar ondo hitz egiteko era bakarra dagoela onartzea, baina gu ez gaude ados horrekin. Badira hitz egiteko era desberdinak, eta guztiak dira egokiak. Guk zergatik diren desberdinak ikasi nahi dugu.

Eta nola heldu zarete Zamudiora?

Zamudio berbarik berba liburuaren berri Jose Hualderen bidez izan dugu eta Iñaki Gamindek egindako beste ikerketa batzuk ere ezagutu ditugu. Euskara bitxia suertatu zaigu; batez ere, aditzak. Baina beste hizkuntza eta euskalki batzuk ere — Ondarroakoa, esate baterako — ikertzen gabilta.

Idea hau da: azaltzea nola esaten diren gauzak eta, garrantzitsuagoa, zergatik esaten diren horrela. Izan ere, euskararen berezitasunak abiapuntutzat harturik, hizkuntzen gaineko ondorio orokorrak atera ditzakegu.

Zer egingo duzue batutako informazioarekin?

Liburu bat prestatzen gabilta eta Zamudioko euskarari buruzko ondorioak liburu horretako kapitulu batean azalduko ditugu. Beste alde batetik, Euskalingua aldizkarian Zamudioko aditzei buruzko artikulua argitaratu dugu eta Philadelphia, Madril eta Gironan izandako kongresuetan Zamudioko euskararen gainean ere aritu gara.



Institutuak eraikin berria behar

Derioko eskolako Guraso Elkartek batu dituen datuen arabera, Txorierriko herri ikastetxeetako ikasle-kopuruak %27ko hazkundera izan du azken lau urteotan (235 ikasle gehiago). Datuok herrialde guztietan jaso dituzte Loiun izan ezik, bertan ez baitago herri ikastetxerik.

Aurreko urteetan 83-88 lagun inguru pasatu dira Lehen Hezkuntzatik institutura, baina, aurreikuspenetan agertzen den moduan, zifra hori 99ra ailegatuko da 2009-2010 ikasturterako. Horrezaz gainera, Txorierriin gero eta etxebizitza gehiago eraikitzeak haranera familia gehiago etortzea ekarriko du eta, beste alde batetik, etor daitezkeen etorkinak ere kontuan hartu behar dira.

Txorierri ikazteko izan eta izaten ari den populazio-hazkundera herri ikastetxeetan nabaritzen hasi da eta zentro batzuk –Deriokoa, esate baterako– egoera berrira egokitu behar izan dira puntualki, ikasle guztiak hartu ahal izateko. Horrek guztiak isla izango du institutuan, izan ere eskolako ikasleen ia %100k bertan jarraitzen ditu ikasketak. “Urte bi barru ikasgela gehiago beharko dira eta ez dago lekurik. Guk ahalik eta arinen beste eraikin bat egiteko eskatzen dugu. Horrek ikasleak hartuko ditu eta eskolak aspaldian institutuari utzitako eraikina berreskuratu ahalko du eta, horrela, leku-arazoa konpondu”, esan digute Derioko Guraso Elkartekoek.

Sei urte: oso epe luzea

Joan den urteko maiatzean Derioko eskolako zuzendariak, institutuko zuzendariak eta Txorierriko Alkateak Hezkuntza Ordezkaritzara jo eta arazoa azaldu zieten. Erantzuna urtebete pasa ondoren jaso dute: Ordezkaritza sei urteren buruko eraikin berri bat egiteko prest agertu da, baina Derioko Udalak orubea eman beharko lieke horretarako. Udala kamioiak aparkatzen dituzten orubea emateko prest azaldu da. Orube hori institutu ondoan dago, eta kamioi-aparkalekua beste leku batera eramango dute, autobia ondora hain zuzen ere.

Txorierri hazkunde itzela izan du azken urteotan eta, horren ondorioz, gero eta ikasle gehiago daude eskolatan. Ikasle gehienak institutura joango dira eta laster leku-arazoa izango da bertan. Hezkuntza Ordezkaritza sei urte barrurako eraikin berria egiteko prest azaldu da; hala ere, guraso elkarteek prozesua arintzeko eskatzen dute.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Txorierriko herri ikastetxe guztietako Guraso Elkartek bildu eta idatzi bat onartu dute, gaiaren gaineko euren iritzia ezagutzera emateko. Azaldu diguten moduan, sei urte oso epe luzea da eta eraikina egoera jasanezina izan baino lehenago altxatu behar da. “Bitartean, zer egin behar dute ikasleek? Prekarioan egon? Leku-faltak gure seme-alaben hezkuntza-kalita-

tea jaistea ekarriko luke eta ez gaude hori onartzeko prest”. Idatzia Txorierriko udal-letxe guztietan aurkeztu dute eta Mankomunitatera eta Hezkuntza Ordezkaritzara eramateko asmoa ere badute, eraikitze lanak arintzea exijitzeko.

Txorierri Institutuan 425 ikasle daude gutxi gorabehera gaur egun. Ikasle-kopurua nahiko antzekoa izan da azken urteotan, baina datorren ikasturtera begira ikasgela berri bat sortu beharko da DBHko lehenengo mailan eta 2012-2013 ikasturtean 150 ikasle berri inguru matrikulatzea aurreikusten dute. Orduan etorriko da benetako arazoa. “Ikasle-kopuruaren hazkundera batez ere eskolatan nabaritu da; institutuan ez horrenbeste.

“Herri ikastetxeetako ikasle-kopuruak %27ko hazkundera izan du azken lau urteotan”

MARMOLCINTZA
GOYO
SITIA DE GASTEKOAK
UBRAK ETA HILERIKIAK
Ezkerreko Erakundeak, 111. K. erakunde
111. K. erakunde (Euzkadi)
Telefono: 94 404 02 90 - Fax: 94 404 02 92

CAFETERIA
IAZI
Egunero menua eta
Menu berezia
94 404 02 90 - 94 404 02 92

Camiseria
Charcuteria
IMAZ
SABOR EN EL MOMENTO
DE SU COMIDA
TEL: 94 404 02 90
LUBRICACION
de maquinaria

du, noizko?

*“Institutuan 425 ikasle
daude gaur egun;
2012-2013 ikasturtean
150 ikasle berri
inguru matrikulatzea
aurreikusten dute”*

Hala ere, herri ikastetxeetan matrikulatu-
ta dauden ikasleak –gehi datozen urteot-
tan bertora bizitzera etorri daitezkeenak
ere– kontuan hartuta, hemendik urte
batzuetara izango ditugun beharriaz
kezkatu egiten gaituzte. Baina egoera
oraindik ez da larria institutuan”, aipatu
digu Jose Luis Egiluz institutuko zuzen-
dariak. Hezkuntza Ordezkaritzak esan-
dakoaren arabera, eraikin berria 2013.
urterako egongo litzateke bukatuta eta
bitartean hala edo nola moldatuko lirate-
keela ziurtatu digu Egiluzek. “Hala ere,
eraikina lehenago egin beharko zela uste
dugu; ez gugatik, eskolagatik baino. Guk
gaur egun gauden moduan beste lauzpa-
bost urte iraun ditzakegu, eta egia da hi-
ru urte barru, ziur asko, zailtasunak izan-
go ditugula eta gela batzuk institutu eta
ikasle-kopuruaren beharriaz egokitu
beharko ditugula, baina konponduko
ginateke. Benetako arazoa sei urteren
buruan izango dugu. Dena dela, Ordez-
karitzak emandako hitza ona izan arren,
epeak arintzen badira, askoz hobeto guz-
tiontzat”.

Txorierriko eskolen ume kopurua

	2003-04	2004-05	2004-05	2006
2 urte	121	128	152	155
3 urte	105	113	124	150
4 urte	82	109	109	127
5 urte	85	84	111	123
LH-1.maila	88	86	88	112
LH-2.maila	74	94	09	91
LH-3.maila	84	68	94	86
LH-4.maila	99	91	72	99
LH-5.maila	56	81	87	74
LH-6.maila	88	59	83	89
GUZTIRA	871	913	1010	1106

Azken lau urteetako hazkundea: 235 ikasle (%27)

Orubea, urtebete barru izango da prest

Lehen aipatu dugun moduan, Derioko
Udala prest dago kamioi-aparkalekua
dagoen orubea uzteko, institutuko
eraikin berria bertan altxatzeko. Baina
Lander Aiarza alkateak azaldu digun
bezala, gestioa Mankomunitatearen
bidez egin behar da, institutuaren
ardura hari baitagokio. “Aparkalekua
beste leku batera eramateko bete
behar diren tramiteak-eta kontuan
hartuta, urtebete edo urte eta erdi

barru orubea eraikitze lanak hasteko
moduan egongo dela uste dugu”.
Aiarza Txorierriko beste alkateekin
bildu da eta laster Guraso Elkarteekin,
institutuko zuzendariarekin eta esko-
lako zuzendariarekin ere bilera izango
dute. Era berean, Mankomunitattik
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila-
ra jo eta eraikina egiteko epeak labur-
tzen ahaleginduko direla ziurtatu
digu.

35 urte bete arte itxarongo dugu independente izateko?



35 urte bete arte itxarongo dugu independente izateko?

TXORIERRIKO IKASTETXEA

35 urte bete arte itxarongo dugu independente izateko?

Ikastetxea 1978an sortu zen, Txorierriko herriaren irakasketa eta kulturaren aldeko konpromisoa adieraziz.

1983an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

1988an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

IKASTETXEA

Herriaren irakasketa eta kulturaren aldeko konpromisoa adieraziz.

1978an sortu zen.

1983an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

1988an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

IKASTETXEA

Herriaren irakasketa eta kulturaren aldeko konpromisoa adieraziz.

1978an sortu zen.

1983an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

1988an, Txorierriko Ikastetxea herriaren erakunde independente gisa sortu zen.

Santzoka Derioko gazteen elkarte

“Herriko gazteon ahotsa izan nahi dugu”



Urte bi pasatu dira lehen aldiz batu eta aurrera egitea erabaki zutenetik. Gazteen taldea osatzen dute eta apurka-apurka leku bat egiten ari dira Derio herrian. Gehiago jakiteko asmoz eurengana jo dugu.

Testua eta argazkiak: Bestorrene



Zer da Santzoka? Zergatik sortu holako talde bat?

Gure herrian gazteriarentzako eskaintza oso urria da. Ezer gutxi antolatzen da eta antolatzen denak ez ditu gazteak parte hartzera bultzatzen, inplikazio pasibora bultzatzen du. Gure iritziz, gazteriaren parte hartzeak antolakuntzatik eta gestio-tik bideratu behar du.

Horregatik, 2004ko abenduan 10 gazte inguru bildu ginen gazte elkarte bat sortzeko. Elkartearen helburuak dira gazteen arteko komunikazioa sendotzea, gazteoi zuzendutako kultur eskaintza aberastea eta gazteen arazoei irtenbidea bilatzea.

Taldea Derioko gazteok osatzen dugu, pentsaera desberdina izan arren kezka komunak ditugunok.

Zer egin duzue orain arte?

Ekintzarik gehienak gazteen arteko komunikazioa lantzeko helburuarekin antolatu




Baserriaren Alkatea

Lecana S. Coop.

Artek: 3.85
BIBLIOTHECA
14.000 m²
12 m² Pasaia Floor
Baserri: 10

Pasaia
antolatzaile



Baserriaren Alkatea
Baserriaren Alkatea
Baserriaren Alkatea
Baserriaren Alkatea
Baserriaren Alkatea
Baserriaren Alkatea

Pasaia
antolatzaile

*“Gure helburua da
Astintze fantzine berria
herriko gazteen artean
zabaltzea, benetako
tresna bat izan
dadin, gure arteko
komunikazioa finkatzeko”*

*“Gure gizarteak eta
bizitza prekarioaren
ereduak asko isolatzen
gaitu eta indibidualismora
bultzatu, baina horri
buelta emateko
aukera dago”*

ditugu. Aurtengo sanisidroetan barba-
koa bat egin genuen eta 50 gazte ingu-
ru bildu ginen. Gabonetan truke azoka
egin genuen. Orain, besteak beste, txal-
laparta ikastaroarekin gabilta. Jaieta-
rako ere Astintze fantzinearen lehen
alea atera genuen, herriko gazte guz-
tion ahotsa izatea nahi duguna.

**Hemendik aurrera zeintzuk dira zuen
asmoak?**

Epe laburrean, gure helburua da
Astintze fantzine berri hori herriko
gazteen artean zabaltzea, benetako
tresna bat izan dadin, gure arteko
komunikazioa bultzatzeko.

Bestetik, azken urte hauetako proposa-
menek gazte asko erakarri dituela iku-
sirik, hurrengo urteetan errepikatzeko
asmoa dugu. Ideia berriak ere baditu-
gu, apurka-apurka gauzatzen joango
garenak. Gure arrastoari jarraitzeko,
bloga bisitatu besterik ez dago (www.blogari.net/santzoka).

**Gazteen arloan zeren falta nabaritzen
duzue gehien?**

Alde batetik, gazte askok ez dute ezer-
tan parte hartzen. Gure gizarteak eta
bizitza prekarioaren ereduak asko iso-
latzen gaituzte eta indibidualismora
bultzatu, baina horri buelta emateko
aukera dago eta horretara gonbidatzen
ditugu gazteak.

Bestetik, Udalak gurekin izan duen
jokabidea salatze modukoa da. Badirudi Udalak ez duela ulertu nahi
guk geuk antolatu eta gestionatu nahi
ditugula geure ekintzak, eta geure
ideiak “kopiatur” enpresa pribatuari
proposatu diote berdina antolatzea.



Txorierrikogazteak.com



Txorierriko Mankomunitateak www.txorierrikogazteak.com webgunea jarri du martxan. Webgunea 14 urtetik 30 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago eta Txorierriko Gazte Planean du sorburua.

Gazteentzat interesgarria den hainbat informazio topa daiteke bertan: lana, hezkuntza, etxebizitza eta aisia, besteak beste. Era berean, "Iritzia eman eta parte hartu" atala zabaltzen dute gazteen partaidetza bultzatzeko. Atal horretan hurrengoak daude: txat-a, forua, bisita liburua eta iradokizunak eta kexak botatzeko atala. Horrela, bada, webguneak Txorierriko gazteen arteko harremana sendotzeko tresna izateaz gain, gazteen eta bertoko instituzioen eta zerbitzuen arteko zubia izatea du helburu. Gazteek aisia-eskaintzan eta eskarian parte hartzea ere webgunaren helburuenetarikoa da. Beste alde batetik, ezinduei egoituta dago.



Txorierrikogazteak.com euskara hutsean egin dute, komunikazioko teknologietan eta aisialdian euskararen erabilera sustatzeko. Joan den irailean logotipo lehiaketa antolatu zen Txorierriko Gazte Planerako eta Lezamako neska batek irabazi zuen. Webgunearen diseinua logotipo horretan oinarrituta egin dute.

Hostalia, Euskal Herriko lehenengo domeinu-erregistratzaile ofiziala

ICANNk -domeinu izenak arautzen dituen nazioarteko erakundeak- domeinu-erregistratzaile ofiziala izendatu du Bilboko Hostalia enpresa (www.hostalia.com). Akreditazio hori betebeharrak tekniko eta finantzario zorrotzak betetzen dituzten enpresei ematen diete, eta gaur egun oso gutxi lortu dute mundu mailan; Espainian, adibidez, sei enpresak besterik ez. Hostaliak Euskal Herriko lehenengo domeinu-erregistratzaile ofiziala izatea

lortu du eta hemendik aurrera azken erregistratzailea ere izango da. Hori dela-eta, zerbitzu askoz hobea eskainiko die bezeroei, eta bitartekari barik.

Beste alde batetik, Hostalia EurID eta Red.es entitateen -.eu domeinuak eta .es domeinuak kudeatzen dituztenak, hurrenez hurren- erregistratzaile ofiziala da. Era berean, 60.000 domeinu baino gehiago kudeaten ditu eta 20.000 bezero baino gehiago ditu.



“Jotak izan ezik, denetariko musika mota sortu dugu”

MA: Taldeak Mafarca zuen izena hasieran eta gure lehen diskoa *Hard Mariachi* izan zen. Motorhead era AC/DC taldeen antzeko musika estiloa jorratzen genuen, baina entseguetan rantxerekin eta distorsioekin jolasten hasi eta Mafarca La Pulquería bihurtu zen. Bilakaera horrek hizkuntza-aldaketa ahalbidetu zuen: aurreko taldean ingelesez abesten genuen eta La Pulquería-ra egindako saltoak modu eroso

Testua eta argazkiak: Jon Goikouria



LIMPOPO
Ekotxori SA
 Biologia eta ingurumen
 zientziak - **Biologia**
 (Madrilako unibertsitatea)



“Gure musika estiloa hurrengo da: ‘Hard Mariachi, Tropi, Punk, Playero, Latino, Balcánico y Vacilón’”

“Edatea bai, baina musikatik jatea ez dugu oraindik lortu”



eta dibertigarrian hizkuntza gaztelania-mexikarrera aldatzera eraman gintuen.

G: Gure abestietan ez dago gai mexikarrik; gai orokorrak jorratzen ditugu eta horiek melodia mexikarrari erreferentzia egiten diote. Mexikoko folkloreak inspiratzen gaitu, besterik ez.

Zein taldek du eragina zuengan?

MA: The Beatles, Sex Pistols, Los Ramones, The Police, The Clash, Mano Negra, Los Fabulosos Cadillacs, Bersuit, El Dúo Dinámico, Voodoo Glow Skulls, Los Thompson Twins, The Specials, The Madness... hor utz dezakegu.

Zeren bila zabilzate?

MA: (Barreak, eta euren artean hitz egin eta gero...) Musikatik edaten dugu, baina jatea ez dugu oraindik lortu.

Gerardo, nondik dator ‘Huracán Romántica’ ezizena?

Fernando Montesinos produktoreak ipini zidan lehen diskoa grabatzen ari ginela:

modu gogorrean abestu behar nuenean ‘Huracán’ esaten zidan; eta hartune lasaie-tan, ordea, ‘Romántica’.

Zuenak zer dira: kontzertuak ala ikuskizunak?

Jordi: Ikuskizunak gogoko ditugu. Kontzertuak gure medio naturalak dira eta horiei esker hobeto uler daiteke zer den La Pulquería.

MA: Rocka musika baino zerbait gehiago-tzat jotzen dugu eszenatoki gainean. Momentu horietan ez dugu inolako gidoirik eta kontzertuetan dena ematea gustatzen zaigu ahalik eta energia handienarekin.

Tan sierto que pasó (Corridos de amor, 2004) abestiaren atzean bitxikeria bat dago...

Pancho: Kontzertuetan botila bat tekila atera eta lehenengo ilaretan daudenei edaten ematen diegu. Azken tragoa ematen duenari eszenatokira igotzeko gonbitea egiten diogu, eta pare bat minutuan gurekin dantzatu eta apur bat zorabiatu ostean, kamiseta bat oparitzen diogu. Batzuetan Volkswagen Golfak oparitzen ditugu, baina gehienetan kamisetak izan ohi dira, e!

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.


Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzaile eta automasaje-ko koltxonetak.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
Espainiako taek-wondo txapelketa
Irabazlea:
Urko Lasarte



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuittua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

Zein talde igo da Lurraldeko Lehenengo Mailara?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Txorimalo kutuna

X. Neira

K herrialdea

J.K. Igerabide

Lierni eta morrokoa

X.Mendiguren

Jalgi hadi plazara

I. Borda

Diotenez

K. Linazasoro

Zakur kalea

H. Zubiri

Beste eguzkia

I. Madina. Asunenbordako Domingo artzain bakartiak, etxaldea utzi eta gazte denborako amodioarekin, Josefinarekin, bat egiteko asmoa dauka bere bizitzaren gainbeheran. Baina egitasmo horren bidean, bere jaioterria, Alkabehera, okupatu duen gazte taldea agertuko da. Zer izan dezakete komunean artzain zahar batek eta okupa lotsagabe batzuek?

Lurpeko herrixka

A. Arana. Itsaso unibertsitateko ikaslea da eta Herauskorritseren harrizko aldarea aurkitu du: gertakari historiko ez oso garbi baten lekukoa da. Gorka adiskidea eta Karlos irakaslea bidelagun ditu gauzak argitu eta aukera egokia zein den erabakitze-ko.

MUSIKA

Musiques eta promenades en pays

Basque

Euskalduna a capella

DENBORA PASA

LETRAZOPA


M	R	Y	A	I	Y	B	Ñ	A	K	N	L	D
U	U	Z	P	X	S	X	U	O	I	J	P	B
S	Y	A	N	K	E	A	X	S	O	P	M	X
T	A	X	T	N	U	R	T	U	T	S	O	Ñ
U	T	B	U	K	P	E	Z	L	F	E	I	R
R	H	B	Z	A	S	A	F	D	Y	L	N	B
R	D	F	T	M	T	H	H	A	E	M	D	A
E	G	X	E	J	I	N	M	R	L	D	N	D
G	A	J	Ñ	G	D	H	G	R	J	E	P	A
S	U	R	H	O	K	U	L	A	Z	S	N	R
P	M	I	T	J	L	O	X	Ñ	K	B	R	F
F	A	E	P	A	R	R	E	K	A	G	Ñ	E

K	X	E	I	D	R	A	Ñ	L	O	E	Ñ	F
T	D	S	U	A	P	U	S	E	I	Y	K	K
R	X	B	R	P	G	N	I	T	J	T	R	O
F	A	T	D	S	K	T	X	H	O	D	Z	N
S	Y	L	U	G	S	Z	F	U	B	A	G	E
A	U	J	S	T	P	E	G	K	R	O	A	J
Y	T	U	M	B	N	O	R	O	E	L	E	U
I	D	H	L	M	P	X	E	M	F	U	H	E
E	Z	K	E	J	N	G	A	D	Z	M	D	J
Z	Ñ	I	M	O	H	Ñ	Y	F	N	B	I	F
X	D	J	I	N	S	A	L	D	I	E	L	M
I	H	Y	B	Ñ	P	N	O	B	Z	L	A	G

Baserritik urten barik, ia gai zaren goiko letrazopan **behi (be-ye)** baten 7 atal aurkitzen*. Kontuan hartu egizu Txorierri esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoa.

Ezkerraldean **AIKOR!** 60. zenbakiaren erantzuna. Baserriko 7 animalien izenak.



–Zamudioko Udala V. Pintura lehiaketa-
ren parte hartzaileen lanak. Irailaren 4tik
28ra, Zamudiotorren.

–Karpinera, uztailaren 25ean (umeentzat).

Umeei zein gazteei zuzendutako udalekuak. Uztailean zehar eta herri guztietan: tailerrak, jokoak, irteerak...

–XXIII. Portugaleteko Nazioarteko Folklore jaialdia. Mexikoko Tatarstan taldea eta Sondikako Gorantzaileak Dantza Taldea. Uztailaren 20an, 22:30ean, Gorondabeko kiroldegian.

[illegible]

Jeans
— 100% COTTON — NO IRON — NO DRY CLEAN —







EXCLUSIVELY IMPORTED BY
[see us at Fashion Week]
Tel. 800 250 00 00
0000 0000 0000

[illegible]

**GARAIOLTZA, S.A.**
PRIMEDIARIK ERAKUNTZAK
LEZAMA
ETXEREGITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN HAILAKO ERAKUNTZAK, LEHIAKETA HANDIAK,
ORDAINTZEN DIBERTASUN HANDIAK
TF. : 94 455 50 19
Urdulotzen auzoa, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaltzairen, gure pertsonen inplikazioaren eta helburuntza jetaibunaren bitartea, berrikuntza eta inposumenarikikuko eragortuamkin batara, Rikaintzearen eragortuamkin bitartea.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsiones, S.A.

GARAJE AURTENETXE, SA.

Lorezaintzarako era guztietako tresneria dugu...
neurrirako zerbitzua eskaintzen dizugu



MOTOPONPA

WB 20 XT

HONDA

The Power of Unleashed.

BELARRA MUZTEKO MAKINA

W54 175A 400



SORGAILUA

W125



MOTOAITZURRA

1 200



BELAR-BIRSORGAILUA

BB 400



TRAKTORE TXINTA

MT 2412 4T



BIRKINGAILUA

BB 175

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18

Arretxalde guztoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Kubota

SABO

OREC

Oleo-Mac

Viking

STIHL